

IBILGAILUAK OINEZKOEN KALEETAN:

FOROAREN ADOSTASUNAK

2010eko martxoak 10

FOROAK ONDO IKUSTEN DU...

1. Oinezkoen kaleak izendatzea, eta horietan ibilgailuak mugatzea.
2. Salvador, Lasao (adokinatua) eta San Roke kaleak, Espaloirako bidea eta Espaloiko plazatxoa oinezkoentzako izendatzea.
3. Maala kalea, eta Gudarien bidea 6 eta 8 etxean bitartean dagoen Torrealderako malda ere, oinezkoentzako izendatzea.
4. Aparkatzea debekatzea Salvador, Lasao adokinatua, San Roke eta Maala kaleetan, Espaloirako bidean eta Espaloiko plazatxoan.

EZ aparkatzearen abantailak	Oinezkoentzako traba Gurpildun aulki eta karroentzako traba Trafikoa murriztea Oinezkoen lasaitasuna Haurrekin lasaitasuna Bizi kalitatea Estetika Zarata Kea Adokinak izorratzea (1.000 euro / urte)
BAI aparkatzearen abantailak	Batzuen erosotasuna
Sor litezkeen kalteak	Ez da kalterik aurreikusten

Entzundako iritziak:

- Ostatu eta Iñaki jatetxeetako ugazabak
- Espaloia jatetxea eta Goibeko kultur elkarteak.
- Dendariak

5. Lasao kalean aparkatzearen gainean (oraindik adokinatuta gabeko zatian), iritzi orokorrak ezetzera jotzen du.

BAI aparkatzearen aldeko argumentuak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bizilagunek eskatu dute (2008ko azaroko idatzia + aurrez-aurre baieztatuta 2010eko urtarrilean). ▪ Ezezkoan, akaso autoen atzera-aurrera gehiago (autoa sartu – deskargatu/kargatu - autoa berriz atera)
EZ aparkatzearen aldeko argumentuak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Konparazioa sor dezake (*) ▪ Salbador kalean zehar autoak atzera eta aurrera (oinezkotasuna eta bere abantailak murriztu) ▪ Lasao kalerako hirigintza egitasmoak: industrialderako oinezko pasabidea, kalea urbanizatzea (adokinak, eserlekuak, arbolak...)

(*) Konparazioei buruz: foroaren bileretan aipatzen zirenean antzekoak izan zitezkeen kasuak, ezezkoaren aldeko iritzia nagusitzen zen. Adibidez:

- Ostatu eta Iñaki jatetxeetako ugazabek eskatzea herriko plaza aparkaleku bihurtzea eguerdian, menua jatera datozen bezeroek aparkatzeko.
- Maala kaleko bizilagunek eskatzea bertan aparkatu ahal izatea, irteerarik gabeko kalea denez (Lasao bezala)
- San Roke ixten denean, bertakoek eskatzea oraingo aparkalekuak mantentzea (kiosko aurrekoak).
- Salbadortar batzuk ere sinadurak bildu eta aurkeztea, Salbadorren aparkatu ahal izatearen alde.
- Salbadorren auto askotxo egoten dira kalearen goialdean aparkatuta. Gero eta gehiago, aipatu zenez. Lasao uzten bada, Salbadorren uzten dutenek ere aldarrikatu dezakete bertan aparkatzen jarraitu ahal izatea.

Lasaoko berezitasuna: ez dela oinezkoen gune edo kale bezala sentitzen, ez daukalako horren itxurarik.

Oinezkoen gune benetan bihurtzen bada (araz bakarrik ez, itxuraz ere bai), ez aparkatzearen aldeko joera garbia da.

Gomendioa: Udalak ahal bezain laster bihur dezala Lasao oinezkoen gune, (industrialderako oinezko pasabidea, kalea urbanizatu, txukundu...).

6. Oinezkoen kaleetarako arautegiaz gain, herrian zehar oker aparkatzeko ohituren aurrean neurriak har daitezela. Batez ere:
- Autobus geralekuetan aparkatzea
 - Espaloiaren gainean aparkatzea
 - Torrealdeako plazan, batzutan ibilgailuak haurtzandegiraino sartu izan dira. Ohitura hori amaitzea bereziki zaindu.
 - Autokarabanen jabeekin hitz egitea, espaloiak ez oztopatzeko kontua izan dezaten.
 - Ondo aparkatzeko kanpainak egitea.

7. Salbador atzealdean aparkatzen utzi ala ez:

- Iritzi kontrajarriak, baiezkoaren eta ezezkoaren alde.
- Gutxieneko adostasuna: arazoak sortzen dituzten puntuei konponbidea jarri. Goiko bihurgunea, Harategia-Haizea zatia, eta zaborra biltzeko ontzien ingurua.

8. Oinezkoen kaleetan ibilgailuen zirkulazioa itxi dadila, baina bertako bizilagunen beharrak erraztu. Adibidez:

- Gaixo edo ezinduta daudenak sendagilearengana etortzea (S. Roke)
- Erosleek erosketak autoetan kargatzea
- Erosketa handiak etxeetara deskargatzea
- Bestelako zamalan txikiak
- Adineko pertsonen inguruan sor daitezkeen behar edo ezustekoak aurreikustea (seme-alabek erosketak ekartzea gurasoei, larrialdiak, seme-alaba batek ezusteko batetan bila etorri beharra...)
- Kanpora bizitzera joan diren seme-alabek, gurasoen etxera datozenean, autoa gurasoen garajejan sartu ahal izatea.
- Garajeetako sartu / irtenak
- Larrialdiak

9. Neurri hauek betetzen ez dituztenei isunak ezartzea

- Isunak azken aukera dira
- Isunen aurretik: abisuak, modu onean azaldu, konzientziarazioa...
- Isunak ezarri eta tramitatzeko sistema egokiena bilatu

Entzundako iritziak:

- Juan Ramon
- Fernando Zenitagoia
- Kontsulta juridiko eta teknikoak: Eusko Jaurlaritza (Trafiko Zuzendaritza), EUDEL.
- Kudeaketako enpresa pribatuak (adituak)

10. Arautegiari frogako epe bat ematea (hilabete batzuk, edo). Epe horren ostean emaitzak aztertu, eta beharrezkoa balitz, arautegia berrikustea.